

Lacubegi eta Lacubeli

JOSÉ VICENTE HUARTE LERGA *

A Caja Pamplona-Iruñeko Kutxa en el 125 aniversario de su fundación. A su director don Manuel López Merino que tanto interés ha demostrado en favor de nuestro viejo y querido pueblo de Eslava.

LACUBEGIren arazoari ikuspegi berri bat ekartzea nahi dio bakarrik komunikapen honek. Gogoetaren, erdi ikusitako egien, ezagutuaren baino begi-sistan ulertuaren arloan mugituko gara derrigorrez. Dena onhar dakiguke ikerlari prestuagoei bide berriak erakustea lortzen badizkiegu.

LACUBEGIren izena erromatar garaieko «ara» batean agertzen da, testu honetan:

COELII TESPHOROS ET FESTA ET TELESINUS LACUBEGI EX VOTO

(Uranga). «Ara», beste bat eskeintzale berberak eskeiniarekin batean ageria, Nafarroako Museoan ikus daiteke. LACUMULATU dermiotik ez urrun ageri zen, «La Blanca» ren zonaldean, nondik, tradizioak dioenez, herria gaur gurtzen dugun irudi ageri berriaren inguruan bizi izatera etorri baitzen. Ba liteke tradizio horrenpean ekintza benetako historikoak izkutatu, nahiz eta ongi ezagutuak ez izan (Uranga).

«Divinidad local» honi buruz orain arte emandako eritziak laburbiltzen ditu Urangak:

Elorzaren iritziak, Blazquezi jarraituz, bi elementu aurkezten ditu izenean: LACU- izenkia eta -BEHG adizkia. Eduki semantikoa 'lakuaren uhina edo zaparrada' izango litzateke, ur jainkozko izaki edo iturriren bat.

Komposatuaren lehen elementua latinezko «lacus» eta LACO hauzoga-betu ongi ezagutuarekin harremanetan sartzen du Iraburuk. -BEGIk 'so egin, gorde' esan nahiko luke. Azkeneko edukia 'Lacozaina' izango litzateke.

* Euskal filologian Lizentziatua.

Baita -BEGI behirekin elkarlotzen du, «ara»n zezen edo behi buruaren tailua dela eta.

Caro Barojak latinezko «lacus»a, Nafarroako «lako»a eta gaztelerako «lagar»a elkarlotzen ditu.

Inoren aburuak ez ukatuz, ez du sinesten Urangak Uxue ur jainkozko izakiendako lur aproposa denik. Baina, hezetasunak ereindak onda ez ditzan, zonaldean drainadurak (Eslaba aldeko «puntidoak») egin behar direla erantzuten dio Salaberrik.

Latinezko «lacus» 'lakua', 'aska', 'kupel handia', 'bihitegia'. 'dolareko abarrea' etab. da (Valbuena), baina baita kristautasuneko infernuari buruz mintzatzeko erabili da. Oroi gaitezen hiletako guztiok ezagututako ondoko testuaz, «in offertorium» hain zuzen kantatutakoaz:

«... libera animas omnium fidelium defunctorum de poenis
infernī et de profundo LACU libera eas de ore leonis ne
absorbeat eas tartarus ne cadant in obscurum...»

Aintzinako xamarra izan daiteke testua, berean kristautasunaren aurreko konzeptuak agertzen baitira, nahiz eta kristautatuak: «tartarus», zigor lekua klasikoan mitologian.

Aintzinako erlijioak gaingituak izan ondoren, herri kristau xeheak lau zonaldetan banatzen du hil-munduko topografia: Goian zerua, Jaungoikoak erabilia, aukeratuen atsedaldea. Behean infernua, pertsasemitar sasijainkoak zaindua, gaizkileen kokalekua. Bien bitartean ikuzleku bat, zeinen ateratzeko ateak zerura eramaten baitu. Azkenean limboa, bataiatu ez direnen «bizilekua». Jakintzale eta olerkariak aintzinatik ezagutu zuten aipatutako banaketa eta baita, hein batean, «misterio» ongi ezagutu batzuei jarratzaileek (Rose).

Ez zebilen bide horretatik herri klasikoaren pentsamoldea. Lehendabizikoan Erromak ez zuen edo goiz galdu zuen geroko munduaren pentsaera berezkoa eta, orokorrean eta aldaketa gutxiz, gai honetan greziarren pentsamoldea onhartu zuen. Beheko eremuan Pluton zen errege. Pluton hori Hadesen izendatzea besterik ez zen, «aberatsa», «emankortasunaren eramailea», «aholku onekoa» bezala. Bere andrearen izena, Proserpina greziar Persefonen itxuragabetzea da. Erreinu hau, mendebal urrunean, hemengo Pirineotan kokatua lehenik gero lurpekotzat gogoratzen da gehienetan eta berean, Asfodeloko zelaian hil arruntak «bizi» dira, gutxiak sentse etiko gabeko Eliseo ala Tartaroan «bizi» direnez (Homero, Rose, Guerber, González de Zárate).

Bizi eta hilen munduak bereizteko ba da urtza bat, Estigeko lakua. Beste lau hibaiek beheko eremua inguratzen du: Akerontea, suzko Piriflegetontea, Kozittoa eta Leteoa (Homero, Rose, González de Zárate). Denon artean beheko munduari LAKU deitzea justifikatuko lukete.

Gure teoria gauzatzeko LACUk mailegu goiztarra izan beharko luke. Ba du gure hizkuntzak guzti honekin zer ikusia izan dezaken izena: OSIN, USIN:

«Con este nombre son designados ciertos pozos... balsas, lagunas o lagos de los que se dice que no tienen fondo y que "tiran" hacia abajo a cuanto se introduce en sus aguas»
(Barandiarán)

Zilegi litzaiguke ondorengo zerrenda:

OSIN, USIN > *UXUNE < UXUE < UJUE?

Ba dugu Eslabako aldean USUNbiribila, UXUÑeta (Salaberri) USUNbeltz eta pixkat urrunago USUN. Arazo honetara bihurtuko gara berriz.

OEHk dakarren BEGI adieren artean 'manantial, fuente' da bat, DRAEk dakarren antzekoa: 'manantial que surge en un llano'. Konposatuetan ere: IturriBEGI, IturBEGI (Azkué). Hona hemen honi buruz N.Holmerek dioena:

«..el 'ojo de agua' es la parte céntrica y profunda de una extensión de agua, alguna vez asociada con la idea de peligro»

Gure ustez LACUBEGIri eman behar zaion ulerkuntza 'lakuaren iturria', 'beheko lakuaren iturria', 'beheko munduaren iturria edo begia' da. Ideia honi eusteko behar beharrezkoa dugu LACUBEGI ala izen finkatutzat, deklinaezinezko izentzat ala *LACUBEGIS izen erromatartutzat hartzea.

Gure ulerkuntzaren arabera LACUBEGI iturria da, baina inoiz ere ez iturri arrunta, behe munduko lakutik goiko mundura ura dakarren iturria, zein hilek eskeini dezaketen laguntzari hildo izan baitzaio.

Iturri sakratu honen ura baltsa batean bildu eta horregatik hesitu izan ziteken. Agian zerutik bidalitako seinale batek hesiketa eskatu zuen, Erromako «Lacus Curtius» en kasuan gertatu zen bezala:

«Cornelius et Lu(c)tatius...scribunt eum locum esse fulguritum et ex s.c. septum esse»

Varronek idatzia.

Esana dugunez arakatutako «ara» «La Blanca» ondoan, LACU eta LACUMULATU dermioetatik ez urrun ageri zen. LACUMULATUari Salaberri ematen dioen ulerkuntza zuzena «lacus vallatus» da.

«La Blanca» zonaldeko iturrien artean bat nabarmentzen da: «Fuente de San Nicolás» izenekoa, 30 metroko osin uzugarria, harri onez egina goitik beheraino, jeisteko eskaileraz ornitua. Iturri ezin hobea da, udan agortzen ez dena eta, dirudienez, aintzinasun handikoa. Bere ondoan harrizko aska boro-bila abereendako.

Ba zegoen inguruetan ermita eta zenbait etxe (Salaberri).

Patraseko San Nikolas, Mirako apezpikua, andre-senargaien zaindari saindua, ogia egiteko garia ugaldtu zuena, IIIgarren mendekoa da, baina bere kultua XIgarren mendera arte ez zen mendebaldera heldu (J.J.N.) Aintzina-ko LACUBEGIri bere kultua kendu ote zion gainera, LACUBEGI eta «Fuente de San Nicolás» iturri bera ote diren eta mitoen ordezkatzearen aurrean ote gauden galde daiteke.

Zeliarren eskeintza bikoitza da: «Ara» batean Jupiterri, goiko jainkoari «jainkoari zor zaiona», «sacrum» eskeintzen diote:

JOVI SACRUM

Bestean, arakutzen dugun horretan, beheko munduari, LACUBEGI medio, «ara» bat eskeintzen diote:

LACUBEGI EX VOTO

«Ex voto» formula beheko jainkoei, Endovellico eta bestei eutsia ongi ezagutzen dugu, goiko jainkoek, patuaren aurrean ezdeus, lortu ahal ez zuten zerbait eskatzeko (Blazquez et alii).

Beheko jainkoei osasuna, emakume, lur eta haziendaren emankortasuna, aberastasuna, etsaien gaingintzea etab. eskatzen zaie. Kontaezinak dira gure Euskalherrian iturri osasun eramaileak. Haietariko zenbait oso aintzinako «numina» en bizilekua da: Mariturri. Beste batzuetan kristautasunak aintzinako «numina» k kendu eta bere lekuan birjinak, aingeruak eta santuak ipini ditu: San Juan Zaharra, Aingiruiturri. Zenbait sakratu da berez: Iturrisantu, Doneiturri(eta) (Barandiarán).

Baina Zeliarren agiantzaria beste bidetik joan liteke: emankortasuna eskatzekoa izan liteke. «Ara»k zezen buruaren tailu bat darama, emankortasunaren ikur ezaguna. Zezena da, Horaziok dioenez, Plutoni eskeintzen zaion zakrifizioa:

«Vano será que inmoles cada día
trescientos toros a Plutón»

(Horacio). Eta nori emankortasuna eskatu beheko munduari ez bada zeinetan erregea, Pluton, hilak direla medio, horren emaitza preziatuaren eramailea baita. Ideia hauen kopurua, kristautasunak mamutua, gure arteraino heldu da: Hilan hilabetea Azaro, Azila da, haziaren aroa, haziaren hilargia eta zitua biltzean, Uztailean, uztaren hilargian, igitaiteko arratsalde beroetan, igitari bakoitzak ondoko kantua egiten zuen gure Eslaban bertan:

Por las pobrecitas almas- todos debemos rezar
que Dios las saque de penas- y las lleve a descansar.
Ellas están suspirando- y entre penas padeciendo,
ellas están esperando- la oración del padrenuestro.

Aitagurearen otoitza egiten zen segidan: Hilak ereintzeko orduan lurraren emankortasuna eskatzeko. Hilak biltzeko orduan emaitza eskertzeko.

Megalitikoaren hedapen osoan, kultu bereziaren tokietan emankortasuna, lur, hazienda eta, batez ere, emakumendako emankortasuna eskatzeko tokiak izan dira, otoitzak, lo egiteak etab. eginez (Wölfel). Uxuen bertan Ama Birjinaren putzuan harri bat jaurtiz emankortasuna eskatu dela dio Barandiaranek. Aintzinako garaietan honela egiten ziren biraoak: teila puxketan biraoa idatzi eta putzu berezi batzuetara bota.

Erritu hori, orain Ama Birjinari eutsia bada, ba liteke askoz aintzinakoa izan. Ba liteke ere erritua «La Blanca» zonaldeetik Birjinaren irudia gurtzaileekin batean etorri, tradizioari jarraituz. Ba liteke aintzinako kultu megalitikoaren leku emankortasuna eskatzeko berezia kokatu izan Uxueko zonaldean.

Orain arte arakatu ditugunak ez dira mundu konzeptual honen aztarna bakarrak. Uxuetik ez urrun, hego-ekialdearen norabidean, beste lekuizen harri garria aurkezten dugu: LACUBELI, zeinen lehen elementua LACU- 'osin, usin, baltsa' baita. Bigarrenak, -BELIk, BELE, BELSTE eta BELTZekin zerikusia izan lezake. Jainko eta gizonen izendegian oso erabilitako elementua da. LACUBELI 'putzu beltz, osin beltz' bezala uler daiteke, Bizkaieko USUMBELTZi urranegi bai bere morfosintaxiaz bai bere semantikaz haien

artean zerikusia ez dutela pentsatzeko. Berriz hiletako «in offertorium» kantatzen genuena:

«ne cadant in obscurum»

azalpen handirik behar ez duena. Esandako norabidetik joanez «La piedra de las brujas» izeneko tokia dugu.

«Hemen, tradizioak dioenez, sorginak gauetz dantzan egitera etortzen ziren» (Salaberri).

Haren ondoan baltsa zahar bat, ipar aldetik harresi zabalek hertsia. Balt-sari «Balsa de Santa Cruz» erraten zaio. Arestiko lekuizenak, dirudienez. Handik eskubiruntz «Carasol de LACUBELI» eta «LACUBELI» dermioak.

Sorginak biltzen ziren zenbait leku aintzinako kultuaren lekuak lirateke: Mariturri, Mairubaratza, agian Akelarre (Barandiarán), kristautasunaren hedakundeak sorginen lekuak bilakatuak. Esandako lekuen gainean «Alto de Santa Cruz», «Balsa de Santa Cruz» izenaren iturburua dugu. Ba liteke berriz mito ordezkatzeko hutsaren aurrean egon. Arestiko ordezkatzeko, baina. Eta mitoen ordezkatzearekin batean baita izenena ere. Zein izan zitekeen baltsaren aintzinako izena, LACUBELI ote?.

Agian multzo sakratu berberetik parte hartuko luke LACUBELIk *UXUNE, LACUBEGI eta LACUMULATUekin.

Eta zergatik LACUBEGI eta LACUBELI hibridoak? Zergatik ez *LACUS FONTS, *LACUS ATER, edo ta *UXUNBEGI, *UXUNBELI?. Es-kuetan darabilzkigun datuekin ezin erantzun onhargarririk eman.

Hizkuntzalaritzaren aldetik ezin ostoporik ipini es LACUBEGI, ez LACUBELIri: kasu batean izen laguntzailea + izen mugagabea. Bestean izena + izenondo mugagabea. Euskal izenak izango lirateke, latinetikako mailegu eta jatorrizko izen batez eraikiak. Bestela, latinezko forma + euskal maileguaz eraikiak balira *LACUSPEGI eta *LACUSPELI izango lirateke azken emaitzak, garai horretan herskari ahostunak ahoskabeak bilakatzen direlako txistukarien ondoren (Michelena, Textos).

Fonetika historikoaren ikuspegitik zaila dirudi ondoko berdinketa: LACUBEGI=LACUBELI, berdinketa justifikatzeko eredurik ez dugulako (Michelena, Fonética; Gavel). LACUBELI «La Blanca» zonaldeetik urrun xamar dago, gainera.

Bai Eslabako PEREMUSTAren kasuan, bai Uxueko LACUBEGIrenean gure mitoak erromatarrak bilakatu direla eta gure aurrean latinez, kultura ezin sinkretistagoaren hizkuntzaz ageri direla esan beharko dugu (Placido et alii). Eskeintzaleak Eslaban bertako andre ongi erromatartua eta Uxuen kampoko familia (greziar libertoak ote?) direla. PEREMUSTA, LACUBEGI gure aintzinako kulturaren aztarnak badira, erromatarrek emanak izan direla.

Gure kulturaren garrantzisko zatiak, erlijio eta hizkuntza, Erromatasunaren bizian sartzen ari dira pixkanaka, nazioarteko kultura handia kultura lokaletan zatitzen den bitartean. Erromatasunaren alboan geratu direnek Erromako uholde kultural aberatsa eta ugaria aurrean dute, egoera ekonomiko eta sozialaren arabera erabiltzeko.

Pentsa daiteke alde batetik Erromatasunak gure kulturaren zatiak erraza-go onartuko lituzkela mito eta erritu koinzidenteak zirelaketz klasikoekin. Wölfelek dioenez indoeuropear herriek europear kultura gero eta ezaguna-

gotik hartu zutela kultura horri eman baino gehiago. Imperioko azkenaldiko uhin barbaroak eredu adierazgarri izan liteke. Eta beste aldetik, gero eta argiago ikusten dena, ba ditugula kure kultura eta hizkuntzan kultura histori-koen estraturik sakonenak arakatzeko giltzak.

ERABILITAKO LIBURUEN ZERRENDA

- AZKUE, R.M. *Diccionario vasco español francés*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969 berargitarapena.
- BARANDIARAN, M.J. *Diccionario ilustrado de Mitología Vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1972.
- BLÁZQUEZ ET ALII. *Historia de España*. Fundada por D. Ramón Menéndez Pidal. Tomo II volúmen I y II. Espasa Calpe, Madrid, 1982, berargitarapena.
- DRAE. DICCIONARIO DE LA LENGUA ESPAÑOLA. 20garren argit. Espasa Calpe. Madrid, 1984.
- GAVEL, H. *Eléments de Phonétique Basque*. RIEV. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969 berargitarapena.
- GONZÁLEZ DE ZÁRATE, J.M. *Mitología e Historia del Arte*. Ephiale, Vitoria, 1997.
- GUERBER H.A. *Grecia y Roma. Mitos y Leyendas*. Itzulk. Seuk Kwon. M.E. Editores, Madrid, 1995.
- HOLMER, N. «Agua, fuego y el ojo». *F.L.V.*52. 161-165, Pamplona 1988.
- HOMERO. *Odisea*. Itzulk. J.M. Pabón. Gredos, Madrid, 1993.
- HORACIO. *Odas-Epodos*. Itzulk. B. Chamorro. 5garren argit. Espasa Calpe, Madrid, 1980.
- J.J.N. *San Nicolás de Bari Obispo de Mira y Patrono de la Ciudad de Alicante*, Alicante, 1928.
- MICHELENA, L. *Textos arcaicos vascos*. Minotauro, Madrid, 1964.
- MICHELENA, L. *Fonética Histórica vasca*. Seminario Julio de Urquijo. 3garren argit, Donostia, 1985.
- OEI. Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia Euskaltzaindia, Bilbo, 1987.
- PLÁCIDO ET ALII. *Historia de España*. II. Planeta, Barcelona, 1988.
- ROSE H.J. *Mitología griega*. Itzulk. J. Godo. Labor, Barcelona, 1973.
- SALABERRI, P. *Eslaba aldeko euskararen azterketa toponimiaren bidez*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1994.
- URANGA, J.J. *Ujué medieval*. Ediciones y Libros, Pamplona, 1984.
- VARRON. M.T. *De lingua latina. Quae supersunt*. Goetz eta Schooel rez. Verlag Hakkert, Amsterdam, 1964.
- VALBUENA. *Diccionario Latino*.
- WÖLFEL, D.J. «Las religiones de la Europa preindoeuropea». In *Cristo y las Religiones de la Tierra*. Editorial Católica. Colección BAC, Madrid, 1960.

LABURPENA

Lan honek dagoeneko mahai gainean jarritako gai bati ikuspegi berri bat gehitu nahi dio, euskera eta euskal kulturatik abiatuta: LAKUBEGI, “begi, barneko munduko iturria” bezala hartzea, hau da, barneko munduko jainkoei patua aldatzeko eskatzeko bidea. Ildo horretatik hiru aukera hauek proposatzen ditugu: UJUE toponimoa UXUNE hitzetik – OSIN, USIN “dei egiten duen putzua” lotu daitekeena – ekartza; LACUBELLI toponimoa “putzu beltza” bezala hartzea eta Ujue inguruan gurtzeko gunee megalitiko-azpimegalitiko bazegoela pentsatzea.

RESUMEN

Esta comunicación no pretende sino añadir, desde la lengua y cultura vascas, una nueva visión a una cuestión ya debatida: la interpretación de LACUBEGI como ‘ojo, fuente del mundo inferior’, cauce por el que pedir a los dioses del transmundo la ruptura del hado. Dentro del mismo complejo de ideas nos planteamos la posibilidad de hacer traer el actual UJUE desde *UXUNE,

relacionable con OSIN, USIN ‘pozo que llama’, de interpretar el topónimo LACUBELI como ‘pozo negro’ y de pensar en un alto complejo de culto megalítico-submegalítico en la zona de Ujué.

RÉSUMÉ

Cette communication ne prétend rien d’autre que d’ajouter, depuis la langue et la culture basques, un nouveau point de vue sur une question déjà débattue : l’interprétation de LACUBEGI comme “oeil, source du monde intérieur”, voie par laquelle on doit demander aux dieux de l’au delà la rupture de la destinée. Au sein du même complexe d’idées, nous observons la possibilité de faire venir l’actuel UJUE de UXUNE, que l’on peut relier à OSIN, USIN “puit qui appelle”, d’interpréter le toponyme LACUBELI comme “puit noir” et de penser en un grand complexe de culte mégalithique - sous-mégalithique dans la région d’Ujué.

ABSTRACT

This intention of this piece is to simply add, from the Basque language and culture, a new outlook on a matter that has already been debated: the interpretation of LACUBEGI as “eye, fount of the interior world”, the course by which to request a change of destiny from the gods of the interior world. Within the same line of thinking, we put forward the possibility of deriving the current UJUE from UXUNE, which may be related to OSIN, USIN “well that calls”, of interpreting the toponym LACUBELI as “black well”, and considering the existence of significant megalithic-submegalithic worship in the Ujué area.